

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela

Maite Zubia Atxaga

Josu Miren Ezkurdia Santamaria

Aitor Zubizarreta Alegria

Aintzane Agiriano Errasti

Edorta Barandiaran Garcia

Nestor Arana Arexolaleiba

Rafael Bernal Gato

Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2017ko maiatzaren 23an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ezin dela etorri adierazi du Maite Uribe Beristain andreak.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 23 de mayo de 2017, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. Excusa su asistencia Maite Uribe Beristain.

## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2017-03-28 eta 2017-04-27.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2017ko maiatzaren 16ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da. Berariaz eman da 6. eta 7. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

Ondoren, Alkateak jakinarazi die bertaratutako zinegotziei nola ikusi edo jaso ditzaketen Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu juntak egindako bileretako aktak erakunde horretako webgunean.

Eta amaitzeko, eta atzo Manchesterren izandako atentatuarekin lotuta, ondoren hitzez hitz transkribatzen den testua irakurri du:

*Eskoriatzako udalak eta EUDELek gaitzespen irmoa adierazi nahi dute, atzo gauean Manchester Arenan eskainitako kontzertu batean izandako atentatu basatiaren aurrean; izan ere, bertan izandako sarraskiak hildako ugari eragin ditu. Eskoriatzak eta Euskadiko Udalen Elkarteak erabateko irmotasunez gaitzesten dute indarkeria terroristaren basakeria. Era berean, dolumina eta elkartasuna helarazi nahi dizkie biktimen senideei, eta espero dute zauritutako pertsona guztiak ahalik eta lasterren sendatzea.*

*Euskadiko Udaletatik besarkada solidario bat eta hurbiltasun sentimendurik zintzoena bidali nahi diegu Manchesterreko hiriari eta britainiar herritarrei, une latz hauetan.*

*Eskoriatzan, 2017ko maiatzaren 23an.*

## **3.- ESKORIATZAKO UDALAK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO LEGEZKO ORDEZKARIEN ERROLDARA KONTSULTAN SARBIDEA EDUKITZEKO HITZARMENA SINATZEA.**

GFAko legezko ordezkarien erroldara udalak sartu ahal izateko hitzarmenaren eranskin bat onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak.

Martxoaren 24ko 162/2017 Foru Aginduak Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien errolda arautzen duen Foru Agindua aldatzen du Gipuzkoako udalek aukera izan dezaten GFAko legezko ordezkarien errolda kontsultatzeko.

Horretarako, Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaz hitzarmenari egindako eranskin berri bat onartu du aipatutako Foru Aginduak, zehazki, D-7 eranskina, «Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta».

Udal honek interesa duenez legezko ordezkarien erroldako datuak kontsultatzeko, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorri eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

**LEHENENGOA.-** D-7 eranskina, «Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta», sinatzea.

**BIGARRENA.-** Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatutako eranskina-hitzarmena Eskoriatzako Udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.

#### **4.- 2016-2019 DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 2/2019 ZENBAKIDUN ALDAKETA.**

Udalbatzarrak, 2017ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoa eguneratzeko erabakia hartu zuen plan hori 2017ko ekitaldiko aurrekontuari egokitzeko.

Eguneraketa onartuta, komenigarria ikusi da planaren eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea lerro estrategikoetako diru laguntza programa batzuen eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko. Aldaketa horiek honako hauek dira:

##### **A- ONDORENGO PROGRAMAK SORTZEA:**

- PROGRAMA: Ti Tau! Umorezko laburmetrai rallya

##### **B- ONDORENGO PROGRAMETAN AURREIKUSITAKO KOSTEA HANDITZEA**

- PROGRAMA: Diru laguntza KARATE ATAMA ELKARTEARI

Aurrez esandakoarengatik, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, indarrean dagoen 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoa ondoren adierazitako moduan aldatzea erabaki du Udalbatzarrak:

**LEHENENGOA.- ONDORENGO PROGRAMAK SORTZEA:**

**1. LERRO ESTRATEGIKOA: KULTUR DINAMIZAZIOA.**

H) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Ti Tau! Umorezko laburmetraia rallya.

HARTZAILEA: Eingeinke elkarte

HELBURUA: ikus-entzunezko sortzaile berriei bide ematea, sormena sustatzea da helburu nagusia.

LORTU GURA DENA:

Eskaintza ezberdin eta dibertigarri bat eskura jartzea.

Parte hartzea sustatzea.

Eskoriatzarrei ondo pasatzeko aukera bat ematea eta bide batez Eskoriatza ezagutaraztea, herrian bertan grabatu behar baita laburmetraia.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna

2017KO KOSTEEN AURREIKUSPENA: 1.000 euro

*FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.70.01*

**BIGARRENA.- ONDORENGO PROGRAMETAN AURREIKUSITAKO KOSTEA HANDITZEA:**

**2. LERRO ESTRATEGIKOA: KIROL SUSTAPENA.**

D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Diru laguntza KARATE ATAMA ELKARTEARI

HARTZAILEA: KARATE ATAMA ELKARTEA

HELBURUA: Karate Atama Elkarteari diruz laguntzea urtean zehar antolatzen dituen kirol jarduerak sortutako gastuak finantzatzeko.

LORTU GURA DENA: Kirol hori eta autobabes teknikak sustatzea, batez ere, gazteengan.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Izenduna.

2017ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 3.600 euro.

*FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.70.01 partida.*

**5.- BERNABE ERRASTI JAUNAREN JABETZAREN AURRETIK MAZMELARAKO BIDERAINO DOAN BIDE ZATIA OFIZIOZ IKERTZEKO ESPEDIENTEA ERABAKITZEN DUEN 2017ko OTSAILAREN 21eko UDALBATZARRAREN ERABAKIAREN AURKA JAVIER ERRASTI URIARTEK JARRITAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOARI BURUZKO ERABAKIA.**

Bernabe Errasti jaunaren jabetzaren aurretik Mazmelarako bideraino doan bide zatiaren titularitatea ikertzeko bideratu eta tramitatutako espedientea ikusi da.

Eskoriatzako Udalbatzarrak, 2017ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, besteak beste, ondorengo erabakiak hartu zituen:

**Lehenengoa.-** Javier Errastik sarrera erregistroko 2.299. idazkian aurkeztutako alegazioak neurri batean onartzea, eta zentzu horretan, AITORTZEA Bernabe Errasti jaunaren jabetzaren aurretik Mazmelarako bideraino doan bide zatia titularitate publikokoa izan dela bertakoek gogoratzen dutenetik, eta horrela dela gaur egun ere.

**Bigarrena.-** Erabaki honen aurrekarietan azaldutako arrazoiengatik, ezestea Javier Errastik sarrera erregistroko 2.299. zenbakia duen idazkian bide zatia oinezkoentzat bakarrik mugatzeari buruz aurkeztutako alegazioa.

**Hirugarrena.-** ZEHAZTEA aipatutako bide zatia beti oinezkoentzat bakarrik izan dela eta dela, eta motordun ibilgailuak ezin direla bertatik igaro.

2017ko martxoaren 24ko sarrera data duen idazki bidez, Javier Errasti Uriarte jaunak berraztertze errekurtsoa jarri du aipatutako erabakiaren bigarren eta hirugarren puntuen aurka. Errekurtsio horretarako oinarritzen da egindako lekukotza frogaren baten interpretazio okerrean, erabakia arrazoitua ez egotean eta hainbat lege agindu urratu izanean.

Errekurtsioa eta zerbitzu teknikoek eta juridikoek egindako txostenak ikusi dira.

Egindako txostenetatik ondorengo ondorioak ateratzen dira:

- Udalaren erabakia behar beste arrazoituta dago, azalpenetan azaltzen direlako Udalak izandako arrazoiak bidea titularitate publikokoa dela eta, salbuespenak salbuespen, beti oinezkoentzako erabilera izan duela esateko; eta arrazoinamendu horrek ez duela eskatzen erabakitako auziaz errekurtsio jartzaileak izan ditzakeen alderdi eta ikuspuntu guztiak xehe arrazoitzerik.

- Beste hainbeste esan daiteke lekukotza frogei buruz, horien balorazioari buruz ez baitator bat errekurtsogilea, Errasti jaunak nahi duena da Udalbatzarraren irizpidea, objektiboagoa eta aldeko interes gutxiagokoa, bere interes partikular interesatuagatik aldatzea.

- Udal erabakiak ez du bere garaian administrazioarekiko auzietarako Donostiako epaitegiak emandako epaiaren inolako mugarik gainditzen, izan ere, epaiak Udala behartzen zuen ofiziozko ikerketa espedientea irekitzera, eta horrela egin da, baina, oinezkoentzako erabilera zehaztea ez da epaiak esandako baino haratago joatea, eta ezta urratzen ere hautsi direla esaten diren legezko agindurik.

- Eskoriatzako Udalak erabateko eskumenak ditu landa bide baten oinezkoentzako erabilera zehazteko, eta areago, zerbitzu teknikoek egindako txostenetik ondorioztatzen baldin bada espedientearen gai den bide zatia ibilgaitza dela gaur egun autoentzako eta motordun ibilgailuentzako.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, eta eztabaidatu ondoren, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Erabaki honen aurrekarietan azaldutako arrazoiengatik, Javier Errasti Uriarte jaunak 2017ko otsailaren 21eko Udalbatzarraren erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsua ezestea. Erabaki horrek Bernabe Errasti jaunaren jabetzaren aurretik Mazmelarako bideraino doan bide zatiaren titularitatea ikertzeko espedientea ebazten zuen.

**Bigarrena.-** Erabaki hau administrazio espedientean interesdun diren guztiei jakinaraztea, adieraziz honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri dezaketela Donostiako dagokion maila bereko Auzitegian, eta horretarako bi hilabeteko epea dutela jakinarazpen hau jasotzen duen biharamunetik kontaktzen hasita. Hori guztiori, egin gura dituzten bestelako egintza edo errekurtsuak aurkeztearen kaltetan gabe.

Labur jasotzen da diktamena bozketara jarri aurretik esandakoak:

Javier Errasti:

(jendartean zegoena, espedientean interesdun zuzena eta hitza berariaz eman zaiona) Lehendabizi, eskerrik asko hitz egiten uzteagatik. Erabaki proposamenari dagokionez, ikusi dut, eta esan behar dut ez nagoela batere ados. Hainbat gauza azpimarratu nahi ditut. Esaten da erabakia behar beste arrazoituta dagoela, eta bakarrik esaten da bide horren erabilera oinezkoentzat izan dela beti, salbuespenak salbuespen. Horrek Eskoriatzako edozein biderako balio du, eta zalantza handiak ditut Udal honek hori orokorra egingo duenik, zalantza handiak. Ez dena esaten da, eta esan beharko litzateke ze arazo dagoen bide horretan erabilera orokorra, gainontzeko bideetako, galarazteko, ze arrazoi duen Udalak legeak egiten hasteko, eta zergatik bide baten 200 metreri buruzko legea egiten duen, bide hori nonbait hasi eta nonbait amaitzen delako. Zuek ikusiko duzue, hartuko den erabakiak ez dit ardura. Gero esaten da lekukoen proben balorazio ezberdina dagoela, eta nik guztiz kontrakoa dela uste dut. Guztiak bat datoz lekukoen proben balorazioan, guztiek

aitortzen dute bide hori publikoa dela; beste kontu bat da Udalbatzar honek, oinezkoentzako erabilera justifikatzeko, proba horietan esaten den zerbait erabiltzea; probak bide horrek erabilera publikoa izan duen edo udal diruekin konpondu den zehazteko dira. Gero esaten da Udalbatzarra objektiboagoa dela eta aldeko interes gutxiago duela, eta horrek barregura ematen dit. Gogorarazi beharko da hemen bagaude nik Udala epai judizial baten bidez parte hartzera behartu dudalako dela, Udalaren aldetik ez delako inolako interesik egon gaia konpontzeko eta parte hartzeko. Udalak jakingo du zer interes defendatzen dituen, baina, uste dut gogoratu behar dela ere orain eskuduna baldin bada bide horri buruzko legeak egiteko, bide horretan mehatxuak jaso nituenean ere legeak egiteko eskuduna zela, baita beherako hodia egin zenean ere, eta gutxienez metro eta erdiko zabalera gorde behar zenean eta ez zen gorde interesdun batek bere lurak itxi zituenean metro bat baino gutxiago zabalarekin; Udalak jakingo du zergatik egiten duen. Udala inpartziala dela eta ez duela interesik, uste dut kasu honetan ondo baino hobeto frogatuta dagoela kontrakoa. Eta gero esaten du erabaki horrek ez duela legedia urratzen, nik ez dut zalantzan jarriko Udalaren eskuduntza legeak egiteko, baina, ondasun publiko baten erabilera aldatzeko prozedura bat behar da, kasu honetan bete ez dena. Jarraitzen dut esaten publikoa bazela, eta argi azaldu dut nire alegazioan, eta erabaki proposamen horretan ez daude bi lerro ere zertan nagoen oker esateko. Badakit esaten ari naizen guztiak ez duela ezertarako balioko erabakia hartuta dagoelako, baina, pare bat gauza argi utzi nahi nituzke. Ez dut zalantzan jartzen Udalaren eskuduntza herri-bideei buruzko legeak egiteko, behin baino gehiagotan eskatu dudalako prozedura honetan. Ez nago oinezkoentzako bideen aurka, alderantziz; oinezkoentzako bide garrantzitsuena, trenbidea erabiltzearena, udalbatzarkide izan nintzen Udalbatzar batek hasi zuen, eta trenbideko lurak, gero zabaldu ahal izateko, ni nengoen beste Udalbatzar batek erosi zituen, eta horretan zerikusia izan nuen. Bidetik oinez ibiltzeko eskubidea beti izan dut, inoiz ez zait ukatu, orain ere ez. Arazoa beste gauza batzuegatik dator. Izan ere, hor atzealdean dagoen gela batean, Eskoriatzako alkate batek bideak eragiten digun bi pertsonen -badakizue nortzuk garen- bidea geuk biok bakarrik erabiltzea proposatu zigun. Eta nik ez nuen onartu, horrek ez zuelako ordezkatzeko Eskoriatzako herritarren interesak, interes orokorra; bide publiko batetik mundu guztiak duelako ibiltzeko eskubidea, Eskoriatzako izan, Kubakoa edo edozein lekukoa, bidea publikoa delako. Eskoriatzako bideekin dauden arazoak ez dira konpondu behar beste alde batera begiratuta, orain arte egin den bezala. Uste dut Eskoriatzako Udalak arazo handia duela bideekin. Eskoriatzako bide publikoak direla-eta, eta asko dira, nahiz eta batzuk esan 2 edo 4 direla, mehatxuak izan dira, ni ere mehatxatu naute, beste batzuk ere mehatxuak jaso izan dituzte; eta nik ezagutzen ditudan bi kasutan, mehatxugileak eskopeta zeraman eskuan. Eta Udalak ere, bertako batzuk, jakin beharko luke(te). Badakit orain istiluak daudela Eskoriatzako hainbat elizateetan, niregana etorri direlako horri buruz hitz egitera. Bide publiko batzuk itxita daude, eta baita herriaren lurak, trenbidearen zabalgunea, hainbat zatitan partikularrek itxita. Eta beste kontu bat, uste dut gaur arte Udalak zorte handia izan duela, istripuak egon, egon direlako (alanbrezko itxitura baten eta bi pertsonen kasua aipatu du). Eta prozeduera guzti honetan gauza asko esan zaizkit, baina inoiz ez didate esan nire argudioak okerrak zirenik eta ezta gezurretan arin nintzenik ere, nahiz eta nik beste batzuegatik horrelakorik esaterik izan. Bakarrik esan nik nire interesak eta Eskoriatzako bide publikoak defendatzen jarraituko dudala interes partikularra dudalako, edo hobe esan, bide publikoei buruzko interes orokorra, gauza asko ikusi ditudalako, eta hor topa egingo dugu, hau ez delako hemen amaitzen, hemen hasi egiten da. Beste gerra bat da, bidea publikoa delako, eta ikusiko dugu zer gertatzen den, zeren eta ziur naiz zuetako inor ez dela joango Santiago Iparragirrerengana etxera ezin dela kotxez joan esatera. Hartu duzuen erabakiaren arabera, Santiago ezin delako bere etxera kotxez joan;

2017/05/23

Osoko Bilkura  
Pleno ordinario

eta Gorosarikoa onartu duzuen moduan, landetxera doazen turistek kotxea bidean utzi beharko dute eta traktorean joan? Edo, Ane Gaztañaga eta bere senarra, kotxea errepidean utzi eta oinez joan behar dira?

Zuek jakingo duzue zertan ari zareten, ez da nire ardura, ni, normalean, oinez ibiltzen naiz bideetan, nahiz eta noizbait kotxean ere igaro. Bihar edo etzi zanga konpontzen bada eta 5 metro gelditu, orduan, pasa ahal izango da? Orain esaten duzuenaren arabera ezin baitira motordun ibilgailuak hortik pasa. Zuek jakingo duzue. Eskerrik asko arretarengatik.

Alkateak: Uste dut lehen ere esan nizula, baina, nik dakidanera arte, Udalbatzar honek interes osoa jarri du gai honetan eta behar izan den denbora guztia eskaini dio, nahiz eta zuk beste iritzi bat izan, baina, ez dut baloraziorik egingo. Uste dut Udalbatzar honek behar besteko denbora eskaini diola. Aurreko udalbatzarrek beste erabaki batzuk hartu bazituzten..., guri gaia iritsi zaigunean, heldu diogu, aztertu dugu eta erabaki dugu. Gauzak nahasten baldin badituzu, hori zure kontua da. Nik garbi daukat gu, espedientea tramitatzen aritu garenean, bidearen zati bati buruz aritu izan garela, eta zati horri buruz erabaki dugu argi eta garbi. Zure gustukoa ez baldin bada, hori beste kontu bat da. Baina, nik, esan dezakedana da behar beste kontrastatu dela hartu diren erabakiak hartzeko. Nik ez badut ere parte hartu batzordean, esan dezaket, badakidalako, gauzak ahalik eta ondoen egin direla. Mamuak ikusten baldin badituzu, lehenago ere esan nizun, sentitzen dudala. Esaten dizut zure alegazioak aztertu zirela, oraingoak ere aztertu dira, eta hartutako erabakia hartu da. Horraino. Seguru jende askok ez duela bat egiten Udal honek hartzen dituen erabakiekin, baina, Udalak legitimitatea du erabakiak hartzeko, eta ez dut uste hartzen ari garen erabakiekin ezer urratzen dugunik. Uste dut eskaera bat zegoela bidearen zati bat erabilera publikokoa dela aitortzeko, eta horrela aitortu da. Horrez gain, bidearen erabilera ere zehaztu da. Horraino.

Errasti jaunak eta Alkateak berriz hitz egin badute ere, ez da transkribatzen esandakoa, orain arte esandakoak errepikatu baitituzte.

## **6.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILTZAK 2016KO LAUGARREN HIRUHILEKOAN JARRITAKO ERAGOZPENAK.**

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaitzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko martxoaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:



1.- .- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT) (Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2017ko 1.a).

2.- .- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT) (Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2017ko 2.a).

3.- “Justifikatzeko” igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT) (Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2017ko 3.a.)

4.- OLAZAR JUBILATUEN ELKARTEARI 2016an emandako diru laguntzaren kitapenari jarritako ERAGOZPEN-TXOSTENA.

(Ez da justifikatu diru laguntza zertarako erabili den).

7.- AMUSKARI 2016an emandako diru laguntzaren kitapenari jarritako eragozpen-txostena. INFORME REPAROS relativa a la liquidación de la subvención concedida en 2016 a AMUSKA ELKARTEA.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**7.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak

2017ko lehen hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

### **8.- UDAL LOKALA PREKARIOAN ERABILTZEKO DEKALA ABELTZAIN BIDEEN ELKARTEAK EGINDAKO ESKAERA.**

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** DEKALA ABELTZAIN BIDEEN ELKARTEARI doan eta prekarioan lagatzea Intxaurtxuetako 9. eraikineko etxabeen dagoen lokalaren erabilera, elkarteko jarduera administratiborako erabili dezan AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALEKO LUR-JABE ERABILTZAILE GIPUZKOARREN ELKARTEAREKIN partekatuta.

**Bigarrena.-** Lokala urtebeterako lagatzen da, honako baldintza hauekin:

- 1.- Lokala administrazio izaerako jardueretarako erabiliko da bakarrik.
- 2.- Lokala "AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALEKO LUR-JABE ETA ERABILTZAILE GIPUZKOARREN ELKARTEAREKIN" partekatuko da.
- 3.- Onartutako erabilera edota aurretik baimendutako erabilera emango dio erabiltzaileak lokalari. Behar bezala zaintzeko betebeharra du, egindako kalteen erantzule izanik; eta jasotako egoera berean itzuli beharko du kontratua bukatzen denean.
- 4.- Udalak eskubidea izango du lagatuko lokalaren ordeztu beste lokal bat lagatzeko interes publikoko arrazoiengatik lokala berreskuratu beharko balu.
- 5.- Erabiltzaileak konpromisoa hartzen du lagatuko lokala behar bezala eta arduraz zaintzeko. Udalaren kontura izango dira argindar gastuak, baina, lokalaren garbitasuna zein izan daitezkeen gainerako gastuak (telefonoa, internet...) DEKALA ABELTZAIN BIDEEN ELKARTEAREN kontura izango dira.
- 6.- Prekarioan lagatutakoa bertan behera gelditu daiteke honako arrazoi hauengatik:
  - Lokala gaizki erabiltzeagatik.
  - Epea bukatzeagatik.
  - Erabiltzaileak lokalari uko egiteagatik.

- Lokala lagatzea justifikatu duten arrazoi sozio-ekonomikoak aldatu direlako.
- Udalaren eskariz lagatzea baliogabetzeagatik; noiznahi egin daitekeena interes sozialeko arrazoiengatik baldin bada.
- Ebazpen judizialagatik.

7.- DEKALA ABELTZAIN BIDEEN ELKARTEA zuzenbide pribatuko eta irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta inolaz ere ez dago Udalaren menpe, eta Udalak ez ditu zuzentzen lokalean egin beharreko ekintzak, eta ez ditu ekintza horiek bere esku utzi eta ez dizkie ere inolako onespenerik edo baiezkorik eman; bakar bakarrik lokala lagatzen du, eta beraz, ez du bere gain hartzen ez zuzenean ez modu subsidiarioan edozein motako ekintzak egiteagatik edo ez egiteagatik lokalean gerta daitezkeen kalte materialik, pertsonalik edo moralik.

8.- Lagapenak urtebeteko iraupena izango du, 2017ko ekainaren 1etik 2018ko maiatzaren 31ra arte. Lagapena amaitutzat emango da alde bietako batek idatziz salatutakoan. Aipatutako salaketa ezarritako baldintzaren bat ez betetzearren aurkeztu daiteke.

Lagapena urtero luzatuko da, alde bietako batek ez badu salaketarik jartzen behintzat. Salaketa jartzekotan, lagapena amaitu baino hiru hilabete lehenago egin beharko da.

### **9.- GOROSARRIKO BIDEAREN MUGATZEA ETA MUGARRIZTATZEA ONARTZEA.**

GI 3310 errepidetik Zarimutzeko Gorosarri baserrietara doan erabilera publikoko bidea mugatzeko espedientearen egindako jarduerak ikusi dira.

2017ko maiatzaren 4an egindako mugaketa aktaren berri eman da.

Horiek horrela, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertararutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** 2017ko maiatzaren 4an egindako mugaketa onartzea, mugaketaren aktan jasota dagoen bezala.

**BIGARRENA.-** Udalak bidea desbideratzea baimendu dezake Gorosarri Goikoa baserriarekin muga egiten duen zatian, betiere, desbideratze hori egiteko interesdunak Udalean aurkeztzen badu desbideratu ondoren bidea pasako litzatekeen lurzatiaren jabearekin egindako hitzarmena. Ordura arte, aktari erantsitako planoan jasotako ibilbidea mantentzen da. Bidea libre egon beharko da beti, oztoporik gabe.

-

**10.- EZ OHIKO KIROL JARDUERETARAKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Udalbatzarkide guztiek ezagutzen dituzte Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak, onartu daitezen, proposatzen dituen oinarriak.

Bozkatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** KIROL ARLOAN OHIZ KANPOKO JARDUERAK ANTOLATZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

**11.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 19:00etan amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1.-APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en las siguientes fechas: 28/03/2017 y 27/04/2017.

## **2.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 16 de mayo de 2017 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas. De forma expresa se da cuenta de las Resoluciones por las que se aprueban los expedientes de modificación de créditos N.º 6 y N.º 7.

Tras ello, el Alcalde informa a todos los corporativos presentes sobre la forma en que pueden acceder a las actas de las reuniones celebradas por la Junta de Gobierno de Debagoineko Mankomunitatea en la página web de la entidad.

Y para finalizar, y en relación al atentado habido ayer en Manchester, lee el texto cuya transcripción literal es la que sigue:

*Eskoriatzako udalak eta EUDELeK gaitzespen irmoa adierazi nahi dute, atzo gauean Manchester Arenan eskainitako kontzertu batean izandako atentatu basatiaren aurrean; izan ere, bertan izandako sarraskiak hildako ugari eragin ditu. Eskoriatzak eta Euskadiko Udalen Elkarateak erabateko irmotasunez gaitzesten dute indarkeria terroristaren basakeria. Era berean, dolumina eta elkartasuna helarazi nahi dizkie biktimen senideei, eta espero dute zauritutako pertsona guztiak ahalik eta lasterren sendatzea.*

*Euskadiko Udaletatik besarkada solidario bat eta hurbiltasun sentimendurik zintzoena bidali nahi diegu Manchesterreko hiriarri eta britainiar herritarrei, une latz hauetan.*

*Eskoriatzan, 2017ko maiatzaren 23.*

## **3.- FIRMA DE CONVENIO PARA QUE EL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA PUEDA ACCEDER EN CONSULTA AL CENSO DE REPRESENTANTES LEGALES DE LA DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA.**

El Departamento de Hacienda Foral y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha aprobado un anexo al convenio que permite a los ayuntamientos acceder al censo de representantes legales de la DFG.

Mediante la Orden Foral 162/2017, de 24 de marzo, se ha modificado la Orden Foral que regula en censo de representantes legales de la DFG para posibilitar que los ayuntamientos de Gipuzkoa tengan la posibilidad de consultar dicho censo.

